

Lehenengo goi haginaurreko hortza

Goiko haginaurreko hortzak, ebakortzak eta betortzak bezala, lau hazkuntza-lobulutatik sortzen dira. Hala ere, aurreko hortzaginetan zingulua sortzen duen hazkunde-lobulua, mihi-aldeko lobulua alegia, garatuago dago eta nabarmenagoa da haginaurreko hortzetan. Haginaurreko hortzen koroak betortzenak baino 1,5-2mm txikiagoak dira altueran, eta haginena baino apur bat handiagoak. Haginaurreko hortzen erroak betortzenak baino laburragoak izaten dira. Erro bikuna agertzekotan, eta hala da gehienetan izan ere, mihi-aldean aurkitzen da erroetako bat eta masail-aldean bestea. Betortzak baino estuagoak izaten dira hurbil-urrun ardatzean.

Haginaurreko hortz guztietan gailur bi aurkitzen dira, biak nahiko nabarmenak, bata masail-aldean eta bestea mihi-aldean, eta bietatik masail-aldekoa izaten da nagusia.

Batez besteko neurriak (masail-aldean neurtuta):

Altuera osoa: 21 mm

Koroaren altuera: 8 mm

Erroen luzera (idun-lerrotik masail-aldeko erroaren erpinerraino): 13 mm

Koroaren zabalera hurbil-urrun ardatzean: 7 mm

Koroaren zabalera mihi-ezpain ardatzean: 9 mm

KEI: 1,6

Masail-aldeko ikuspegia

Ikuspegi honetatik goi betortza gogorarazten du. Agerian da masail-aldeko gailurra, mihi-aldekoa ez bezala. Koroaren silueta ia zuzena izaten da idun-lerrotik ukiguneetara bitartean, alde urrunean nahiz hurbilean, baina doi bat ahurra ere izan daiteke. Koroa zabala da ukiguneen aldamenean eta estuagoa idun aldean. Ukigune biak ganbil azaltzen dira. **Ukigune hurbila** erdiko herenean dago kokatuta, gehienetan erdiko herenaren eta herste-herenaren arteko elkargunea baino doi bat idun-alderago, baina elkargunean bertan ere izan daiteke. **Ukigune urruna** berriz erdiko herenean dago beti, idun aldetik gertuago ukigune hurbila baino. Ganbila izan arren, pixka bat zabalagoa eta zapalagoa da alde hurbilekoa baino. Koroaren silueta ganbila da erdiko herenean eta herste-herenean, bai alde hurbilean eta bai urrunean.

Masail-gailurraren burua erdigunean barik apur bat alde urrunean kokatuta dago. Masail-gailurretik gailur-gangar bana abiatzen da atxikitze-alde bakoitzerantz, **gailur-gangar urruna** eta **gailur-gangar hurbila** alegia. Bietatik luzeena hurbila izaten da, eta aipagarria da lehenengo goi haginaurreko hortzean besterik ez dela honela gertatzen. Halere, gangar bion neurriak aldatu egin daitezke higaduraren ondorioz.

Masail-aldeko aurpegia ganbila da eta **masail-gangarrak** zeharkatzen du goitik behera masail-gailurretik idun-lerroraino. Masail-gangarra masail-aldeko erdiko hazkuntza-lobulutik sortua da. Masail-gangarraren albo bakoitzean **sakonune edo garapen-ildo** bana antzematen zaizkio, batez ere herste-herenean: alde urrunean **garapen-ildo masail-urruna**, eta alde hurbilean berriz **garapen-ildo masail-hurbila**. Garapen-ildo hauek bereizi egiten dituzte hazkuntza-lobulu hurbila eta urruna erdiko hazkuntza-lobuluarengandik.

Idun-lerroa zapal samarra da ohiz. Erroak 3-4mm laburragoak dira goi betortzaren erroa baino, nahiz eta berdintsu izan tankeran. Gutxinaka estutuz doaz erpinera gerturatu ahala, eta masail-aldeko erroaren erpina gehienetan apur bat alde urrunera okertuta agertzen da.



Lehenengo goi haginaurreko hortza. Ezkerretik eskuinera masail-aldeko, mihi aldeko, alde hurbileko eta urruneko ikuspegiak. 1. Ukigune hurbila. 2. Ukigune urruna. 3. Masail-gailurra. 4. Masail-gailurraren gailur-gangar urruna. 5. Masail-gailurraren gailur-gangar hurbila. 6. Mihi-gailurraren gailur-gangar urruna. 7. Mihi gailurra. 8. Mihi-gangarra. 9. Idun-lerroa. 10. Bazter-gangar hurbila. 11. Masail-gailurraren hiruki antzeko gangarra. 12. Mihi gailurraren hiruki antzeko gangarra. 13. Erdiko ildo. 14. Erro-ondoa. 15. Erroen bikoizgunea. 16. Masail-erroa. 17. Mihi erroa. 18. Bazter-gangar urruna.

Mihi-aldeko ikuspegia

Mihi-aldeko aurpegi osoa ganbila da, eta batzuetan **mihi-gangar** bat ager daiteke **mihi-gailurretik** idun-lerroraino. Mihi-aldea masail-aldea baino estuagoa da, eta ondorioz masail-

aldearen eremu bat agerian da ikuspegi honetatik. Mihi-aldeko gailurra laburragoa da masail-gailurra baino, beraz agerian daude ikuspegi honetatik bai mihi-gailurra eta bai **masail-gailurra**, mihi-gailurra aurrez-aurre eta masail-gailurra berriz atzean daudela. Mihi-gailurra biribilagoa da masail-gailurra baino. Osterantzean masail-aldeko siluetaren itxura bera dauka mihi-aldekoak ere.

Idun-lerroa leunki uztaitzen da erro-alderantz. Erro-aldearen aurpegia ganbila da eta erpina okertuta ager daiteke, ia beti alde urrunerantz. Erroa, koroaren antzera, estuagoa da mihi-aldean masail-aldean baino, eta honen ondorioz mihi-aldeko erroaren alboetan masail-aldeko erroa geratzen dira agerian. Mihi-aldeko erroaren silueta ere, masail-aldekoa bezala, pixka bat ganbila da atxikitze-aldeetan.

Atxikitze-alde hurbileko ikuspegia

Aurpegi hurbila zapal samarra izaten da oro har iduneko eta erdiko herenetan. Higituta ez dauden hortzetan **masail-gailurra** milimetro batez inguru gailenagoa izaten da **mihi-gailurra** baino. Hau da izan ere hortz honen ezaugarri nagusietako bat. Gailur bien buruen arteko tartea 6mm ingurukoa izaten da eta bien artean **erdiko hobia** gertatzen da. Erro-aldearen ardatz nagusia koroaren erdiko hobitik iragaten da. Atzeko goi hortz guztietan bezala, mihi-gailurraren eta masail-gailurraren buruen arteko tartea txikiagoa da erroaren iduneko heren osoak mihi-masaila ardatzean duen zabalera baino. Erro-aldean hasita goitik behera koroaren idun-hereneraino **garapen-sakonune hurbila** luzatzen da. Sakonune hau lehenengo goi haginaurreko hortzaren ezaugarrietako bat da, eta erro bakardun aldakietan ere nabarmena izaten da.

Gailur bakoitzaren burutik hobiaren erdiguneraino **hiruki itxurako gangar** bana abiatzen da. Atxikitze-alde hurbileko **bazter-gangarra** laua izaten da eta herste-aurpegiaren alde hurbila osatzen du. **Bazter-ildo hurbilak** bazter-gangar hurbila zeharkatzen du, herste-herenean edo bakanago erdiko herenean bukatzeko. Ez du garapen-sakonune hurbilarekin bat egiten. Bazter-ildo hurbila ere haginaurreko hortz honen ezaugarri berezietako bat da.

Masail-aldeko silueta erdiko eta iduneko herenen arteko elkargunean da ganbilena. Mihi-aldeko silueta apur bat zapalagoa izaten da.

Idun-lerroa herste-aldera uztaituta agertzen da, alde urrunean baino areago. Koroaren aurpegi hurbila leuna da, baina bertan garapen-sakonune hurbila aurkitzen da, batzuetan erro-aldeko sakonune hurbilarekin bat egiten duela.

Gehienetan erro bi aurkitzen dira, bata mihi-aldean eta bestea masail-aldean. Inoiz ere hirukuna bada, mihi-aldean da hiruretarik bat eta masail-aldean dira enparatu biak. **Erroen bikoizgunea** erdiko herenean edo erpinekoan dago gehienetan, hau da, erro-aldearen erdia edo gehiago erro ondoak osatzen du altueran. Halere badago bikoizgunea iduneko herenean

aurkitzerik ere. Ia beti agertzen dira muin-kanal bi, bakuna nahiz bikuna izan erroa. Erro biak aski zuzenak izaten dira, sarritan erpina doi bat okertuta aurki badaiteke ere.

Atxikitze-alde urruneko ikuspegia

Atxikitze-alde hurbilekoaren antzekoa bada ere, badaude alde aipagarri batzuk. Koroaren aurpegi hurbila ez bezala, aurpegi urruna ganbila da ia guztiz, ez baitauka **garapen-sakonunerik** iduneko herenean, ez eta **bazter-ildorik** gehienetan. **Idun-lerroa** alde hurbilekoaren antzekoa izaten da. Erroaren aurpegia zapal samarra edo doi bat ganbila ere izan daiteke, eta ez da sakonune nabarmenik agertzen.

Herste-aldeko ikuspegia

Koroa pentagono itxurakoa da, eta zabalagoa mihi-masaila ardatzean hurbil-urrun ardatzean baino. Biribil samar agertzen da oro har, eta sarritan apur bat alde hurbilerantz giltzurrun antzera bildua. **Masail-gangarrak** V ireki baten antza ematen dio masail-aldeko siluetari. Mihi-aldea masail-aldea baino estuagoa da eta ez zaio simetriarik antzematen, **mihi-gangarra** erdigunean barik apur bat alde hurbilean kokatuta baitago. Silueta hurbila zapal edo ahur samar agertzen da bazter-gangarren aldamenean. Silueta urruna ostera ganbilagoa da, gehienbat **masail-gailurraren gailur-gangar urrunak** eta **bazter-gangar urrunak** bat egiten duten eremuan.

Osagai nabarmenenak **masail-gailurra** eta **mihi-gailurra** dira. Gailur bakoitzetik bina **gailur-gangar** abiatzen dira, bata alde hurbilerantz eta bestea alde urrunerantz. Masail-gailurraren gailur-gangar hurbilak angelu bat osatzen du **bazter-gangar hurbilarekin**, eta gauza bera gertatzen da gailur-gangar urrunaren eta bazter-gangar urrunaren artean. Mihi-gailurraren gailur-gangarrek ostera uztai antzeko gangar biribilduak sortzen dituzte bazter-gangararekin batera. Beraz **angelu masail-hurbila** eta **angelu masail-urruna** zorrotz samarrak dira, eta ostera **angelu mihi-hurbila** eta **angelu mihi-urruna** biribilduak dira. Bazter-gangar hurbila eta urruna dira, gailur-gangar hurbilarekin eta urrunekin batera, herste-aldearen mugarriak. Bazter-gangar hurbila zuzen samarra da, eta bazter-gangar urruna berriz ganbilagoa. Halere **bazter-ildo hurbilak** giltzurrun antza ematen dio koroaren silueta hurbilari. **Ukigune hurbila** masail-aldeko herenaren eta erdiko herenaren arteko elkargunean dago, eta **ukigune urruna** berriz apur bat masail-alderago kokatuta dago.

Masail-gailurretik herste-aldearen erdiguneraino **masail-gailurraren hiruki itxurako gangarra** abiatzen da. Aurrez aurre dauka mihi-gailurretik erdiguneraino datorren **mihi-gailurraren hiruki itxurako gangarra**. Masail-gailurraren hiruki itxurako gangarra oso nabarmena da, mihi-gailurrarena ez bezala. Masail-aldeko hiruki itxurako gangarra doi bat luzeagoa da eta ondorioz **erdiko ildo** erdigunean barik pixka bat mihi-aldean dago. Gangar


biek batera **zehar gangarra** osatzen dute. Erdiko ildoak zeharkatu egiten du herste-aldea du hurbil-urrun ardatzari jarraituz. Ildo honen luzerak koroa osoak hurbil-urrun ardatzean duen zabaleraren erdia osatzen du, eta hau lehenengo goi haginaurreko hortzaren beste ezaugarri berezi bat da. Erdiko ildoaren mutur bakoitzean, hau da, zehar gangarraren eta bazter-gangar bakoitzaren artean, hiruki itxurako hobi bana kokatzen da, **hiruki itxurako hobi hurbila** eta **hiruki itxurako hobi urruna** alegia. Bietarik hurbila izaten da handiena. Hiruki itxurako hobi hurbiletik **bazter-ildo hurbila** abiatzen da atxikitze-alde hurbilerantz, bazter-gangarra zeharkatuz koroaren herste-hereneraino iristeko. Hiruki itxurako hobi hurbilean elkarrengandik aldentzen diren ildo osagarri bi sortzen dira, **ildo masail-hurbila** eta **ildo mihi-hurbila**, eta bi hauen eta erdiko ildoaren arteko elkargunean **hobitxo hurbil** bat ager daiteke. Hobitxo hurbil hau eta bazter-ildo hurbila haginaurreko hortz honen ezaugarri dira. Erdiko ildoak hiruki itxurako hobi urrunera iristean ildo osagarri txiki bitan banatzen da, **ildo masail-urruna** eta **ildo mihi-urruna** sortzen ditu alegia. Hiruki itxurako hobi urrunetik **bazter-ildo edo sakonune urrun** bat ere abia daiteke, baina hau bakanago gertatzen da. **Hobitxo urrun** bat ere aurki daiteke batzuetan hobiaren erdigunean.

Erro-aldea eta muin-aldea

Goian aipatu bezala, lehenengo goi haginaurreko hortzak erro bakar bat, bi edo hiru izan ditzake. Bi errodua izatekotan masail-aldean izaten da bata eta mihi-aldean bestea. Hiru errodua bada, berriz, bi agertzen dira masail-aldean eta mihi-aldean hirugarrena. Bakarra agertzen denean, bi edo hiru osagai izaten ditu batean.

Koroa-barrunbea askoz zabalagoa da mihi-masaila ardatzean hurbil-urrun ardatzean baino. Beraz, koroa-barrunbeak karratu edo laukizuzen antza izateko joera du atxikitze-aldeetatik ikusita baina masail-aldeetik edo mihi-aldeetik berriz nekez bereizten dira elkarrengandik koroa-barrunbea eta muin-kanalak, biok baitira oso antzekoak zabaleran. **Muin-adar** bi agertu ohi dira, masail-aldeko bat, handia, eta txikiago bat mihi-aldean. Gehienetan (%62) **muin-kanal** bi agertzen dira, eta bakanago (%5) hirugarren bat ere aurki daiteke masail-aldean¹. Sarri (%18) agertzen dira III motako kanalak, hau da, koroa-barrunbetik bi kanal abiatu eta ondoren bat egiten dutenak.

¹ Vertucci & Gegauff, 1979



Lehenengo goi haginaurreko hortza. Ezkerretik eskuinera herste aldea, eta muin barrunbea hurrenez hurren masail aldeko ikuspegitik eta alde hurbiletik begiratuta. 1. Masail-gangarra. 2. Mihi gangarra. 3. Masail-gailurra. 4. Masail-gailurraren gailur-gangar hurbila. 5. Masail-gailurraren gailur-gangar urruna. 6. Masail-gailurraren hiruki antzeko gangarra. 7. Mihi gailurra. 8. Mihi gailurraren gailur-gangar hurbila. 9. Mihi gailurraren gailur-gangar urruna. 10. Mihi gailurraren hiruki antzeko gangarra. 11. Bazter-gangar hurbila. 12. Bazter-gangar urruna. 13. Erdiko ildo. 14. Hiruki antzeko hobi hurbila. 15. Hiruki antzeko hobi urruna. 16. Angelu masail-hurbila. 17. Angelu masail-urruna. 18. Angelu mihi-hurbila. 19. Angelu mihi-urruna. 20. Masail-aldeko muin-adarra. 21. Mihi aldeko muin-adarra. 22. Koroa-barrunbea. 23. Masail-aldeko muin-kanala. 24. Mihi aldeko muin-kanala.